# ENPRESAREN ERAKETARAKO ALDE JURIDIKOAK

2010/II/09

DEMA
ENPRESAK SORTUZ ETA GARATUZ
CREACIÓN Y DESARROLLO EMPRESARIAL

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Europako Gizarte-Fondoa
Fondo Social Europeo
*Europako Gizarte Fondoak zure etorkizunean inbertitzen du*
*El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro*

# ÍNDICE

**NEGOZIO BATI EKITEKO FORMA JURIDIKOAK:**

- Banakako enpresaria / Mendeko autonomoa.
- Ondasun-erkidegoa.
- Sozietate Mugatua.
- Sozietate Mugatua. Enpresa Berria.
- Sozietate Anonimoa
- Kooperatiba Elkartea.
- Kooperatiba Elkarte txikia.
- Lan Sozietatea (Anonimoa edo Mugatua).
- Sozietate Profesionala.

- Sozietate-motak konparatzeko orriak.

**ENPRESAK ERATZEKO TRAMITEAK:**

- Gizarte eta laneko formalitateak.
- Jarduera kokatzeko formalitateak.
- Jarduera hasteko formalitateak (JEZ,..).
- Patente eta marken erregistroa (jabetza Industriala).
- Enpresa aseguratzea.

- Laneko oinarrizko aldeak.

# BANAKAKO ENPRESARIA / MENDEKO AUTONOMOA

**BANAKAKO ENPRESARIA**

- Pertsona fisikoa.
- Ez dago banaketarik enpresaren ondarearen eta norberaren ondarearen artean.
- Enpresako zorren aurrean, enpresariak bere ondasun guztiekin erantzuten du.
- Eratzeko orduan, ez dago formalitaterik edota erregistroan inskribatzeko beharrik.
- Zerga-ordainketa:
  - Alta JEZ-en
  - PFEZ
  - BEZ (salbuetsita egon ezean)

**MENDEKO AUTONOMOA**

- Banakako enpresariaren erregimen berdina.
- Jarduera bezero bakar batentzat gauzatzen dute nagusiki (Diru-sarreren %75).
- Baldintzak:
  - Inoren konturako langilerik ez izatea.
  - Produkziorako azpiegiturarik ez izatea edo establezimenduko titularra ez izatea.
  - Jarduera garatzeko orduan antolaketarako irizpide propioak baliatzea.
- Bezeroarekin kontratua sinatzen da, eta hori ez betetzeak, kalte-ordainak ordaindu beharra ekar lezake.

# ONDASUN ERKIDEGOA

- Araudi aplikagarria: Kode Zibila, 392-406 eta 1665-1708 arteko artikuluak.
- Izaera: Sozietate zibila, ez merkataritzakoa.
- Ez dauka nortasun juridiko propiorik.
- Eraketarako formalitateak: ez dago (ondasun higiezinetan salbu). Kontratu pribatua sinatzea komeni da: partaidetzen portzentajea arautzeko, erabakien erregimena zehazteko, etab…
- Bazkide-kopurua: 2 edo gehiago.
- Ekarpenak: Borondatezkoak. Ez dago gutxieneko kopururik.
- Bazkideen erantzukizuna: mugagabea (zorrik balego, beraien ondasun pertsonalekin egingo dute aurre).

- Fiskalitatea:
  - OE-ren IFK eta OEZ.
  - JEZ: Ondasun Erkidegoaren alta bakarra.
  - BEZ, bakarra OE-etan (OE da fakturatzen duena).
  - PFEZ: bazkide-komunero bakoitzak bere PFEZ likidatzen du, dagokion partaidetza-kuotaren arabera.

DEMA ENPRESAK SORTUZ ETA GARATUZ / CREACIÓN Y DESARROLLO EMPRESARIAL

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia

Europako Gizarte-Fondoa
Fondo Social Europeo
*Europako Gizarte Fondoak zure etorkizunean inbertitzen du*
*El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro*

# SOZIETATE MUGATUA

- Arauketa: martxoaren 23ko 2/1995 Legea.
- Eraketarako formalitateak:
  - Notario aurreko eskritura publikoa.
  - Merkataritzako Erregistroko inskripzioa.
- Kapital Soziala: 3.005,06 €.
- Hasierako ordainketa: %100
- Bazkide-kopurua: 1etik aurrera (pertsona bakarrekoa).
- Bazkideen erantzukizuna: ekarpenen araberakoa.
- Partaidetzen eskualdaketa: gainerako bazkideek lehenespenez eskuratzeko eskubidea (Sozietate itxia).
- Gizarte organoak:
  - Bazkideen Batzar Nagusia: erabakiak hartzeko.
  - Administrazio organoa:
    - Administratzaile bakarra.
    - Administratzaile ugari: solidarioak edo mankomunatuak.
    - Administrazio-kontseilua (3-12 kide artean).
- Fiskalitatea: (nortasun juridiko propioa)
  - IFK independentea eta OEZ (Kapital Sozialaren %1).
  - Alta JEZ-en.
  - BEZ (jarduera jakin horren salbuetsia duenetan izan ezik).
  - SZ: (Bizkaia) orokorra: %28.
    (enpresa txikia: %24).

DEMA ENPRESAK SORTUZ ETA GARATUZ CREACIÓN Y DESARROLLO EMPRESARIAL

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Europako Gizarte-Fondoa
Fondo Social Europeo
*Europako Gizarte Fondoak zure etorkizunean inbertitzen du*
*El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro*

# SOZIETATE MUGATUA: ENPRESA BERRIA

- Ekintzaileentzako enpresa-mota aproposa.
- Arauketa: 7/2003 Legea (03-06-02tik indarrean).
- SL tradizionalaren berezitasun bat da, sinpleagoa, eta enpresa ekintzaile nahiz mikro enpresetara egokitutakoa.
- Dokumentu elektroniko bakar baten bidez eratzen da (1332/2006 ED), eta aholkularitza nahiz tramitaziorako laguntza eskaintzen du.

**EZAUGARRI GARRANTZITSUENAK**

- Bazkideak pertsona fisikoak soilik, eta eratze-unean gehienez 5.
- Pertsona bakarreko SL Enpresa Berria baimenduta dago.
- Izen sozial berezia: bazkideen izen-abizenak.
- Helburu sozial generikoa, jardueren malgutasun handiagoa ahalbideratzen duena.
- Kapital soziala: 3.012 € eta 102.202 € artean.
- Funtzionamendu eta deialdi errazeko organo sozialak: Bazkideen Batzar Nagusia eta administrazio-organoa (pertsona bakarrekoa edo pertsona ugarikoa).
- Kontabilitate betebeharra: kontabilitate sinplifikatu bidezkoa.
- Abantaila fiskalak, aurretiazko baimena behar dutenak:
    - Zorren ordainketa geroratzea: OEZ eta JEZ. (urtebetez).
    - Zorren ordainketa geroratzea: IS. (lehenengo 2 zergaldiak).
    - Txikipen edota konturako sarreretatik eratorritako zenbatekoen geroratze edo zatikatzea (lehen urtean).
    - Enpresarako aurrezki-kontua sortzeko aukera, etxebizitzako aurrezki-kontuaren erregimen fiskal berdinarekin.

DEMA
ENPRESAK SORTUZ ETA GARATUZ
CREACIÓN Y DESARROLLO EMPRESARIAL

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Europako Gizarte-Fondoa
Fondo Social Europeo
*Europako Gizarte Fondoak zure etorkizunean inbertitzen du*
*El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro*

# SOZIETATE ANONIMOA

- Arauketa: 1564/89 Legea eta Sozietate Mugatuei buruzko 2/95 Legearen 2. Xedapen Gehigarria
- Eraketarako formalitateak:
  - Notario aurreko eskritura publikoa
  - Merkataritzako Erregistroan inskribatzea
- Gutxieneko kapitala: 60.101,21 € (dirua – ondasunak – perituak tasaturiko eskubideak)
- Hasierako gutxieneko ordainketa: %25
- Bazkide-kopurua: 1etik aurrera (pertsona bakarrekoa)
- Bazkideen erantzukizuna: ekarpenen araberakoa.
- Gizarte organoak:
  - Akziodunen Batzar Nagusia: erabakiak hartzeko.
  - Administrazio Organoa:
    - Administratzaile bakarra.
    - Administratzaile ugari (solidarioak edo mankomunatuak).
    - Administrazio Kontseilua.
- Fiskalitatea:
    - IFK independentea eta OEZ (Kapital Sozialaren %1).
    - Alta JEZ-en.
    - BEZ (jarduera jakin horren salbuetsia duenetan izan ezik).
    - SZ: (Bizkaia) orokorra: %28.
      (enpresa txikia: %24).

## SAren GAINEKO ABANTAILAK

- Gutxieneko kapitala: 3.005,06 € (SA:60.101,21 €).
- Diruzkoak ez diren ekarpenek ez dute perituaren txostenik behar.
- Batzar Nagusia: deialdia egiteko eta erabakiak hartzeko baldintza malguagoak.
- Tramite merkeagoak, kapital soziala txikiagoa delako. (Notaritza, Merkataritzako Erregistroa, IPP, etab.)
- Bazkideek protagonismo eta kontrol gehiago partaidetza sozialei dagokienez.
- Kontabilitate eta fiskal arloko betebeharrak: berdinak.

# KOOPERATIBA ELKARTEAK

- Arauketa: Euskadiko Kooperatibei buruzko 4/93 Legea (24-06)
  Aurrekoa aldatu zuen 1/2000 Legea (29-06)
- Eraketarako formalitateak:
  - Eskritura publikoa.
  - Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzea (EJ).
- Gutxieneko kapitala: 3.000 € (didua, ondasunak edo eskubideak).
- Bazkide-kopurua: gutxienez 3.
- Bazkideen erantzukizuna: ekarpenen araberakoa.
- Gizarte organoak:
  - Batzar Nagusia: erabakiak hartzeko.
  - Artezkaritza Kontseilua (Administrazioa).
  - Zaintza-batzordea (kontrol ekonomikoa).
- Fiskalitatea SL edo SAren berdina, honako salbuespenekin.
  - OEZ ordaintzeko salbuespena
  - SZ:
    - Enpresa txikientzako hobari-tasa: %18.
    - Gainerakoak: %20.
- Diru-laguntzak: gizarte ekonomiako enpresei zuzenduriko laguntza bereziak (Eusko Jaurlaritza- Lan Saila).

## KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIAK

- Arauketa: Euskadiko Kooperatiba Elkarte Txikiei buruzko 6/2008 legea (25-06)
  Euskadiko Kooperatibei Buruzko 4/93 Legea (24-06)
- Eraketarako formalitateak:
  - Eskritura publikoa.
  - Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskribatzea (EJ).
  - Estatutu Sozial estandarrak argitaratzea.
  - Izena: "Kooperatiba Elkarte Txikia" edo "Koop. Elk. Txikia".
- Bazkide-kopurua: gutxienez 2 eta gehienez 10 bazkide langile edota iraupen mugagabeko langile.
- Kontratazioa: Iraupen jakineko kontratuaren mugak.
- Berezitasunak gobernu-organoetan.
- Bazkide-kopurua gainditvz gero, Estatutu Sozialak 4/1993 Legera egokitu beharko dira.
- Arintasuna eta azkartasuna eraketa-tramiteetan.
- SZ:
  - Enpresa txikientzako hobari-tasa: %18
  - Gainerakoak: %20

# LAN SOZIETATEAK

- Arauketa: Lan Sozietateei buruzko 4/1997 Legea.
- Eraketarako Formalitateak:
  - Eskritura publikoa.
  - Sozietate Mugatuaren edota Sozietate Anonimoaren forma hartzea.
  - Lan Sozietateen Erregistroan inskribatzea (EJ).
  - Merkataritzako Erregistroan inskribatzea.
- Bazkide-kopurua: gutxienez 3 (bazkide bakoitzak ezin du Kapital Sozialaren 1/3 gainditu).
- Bazkide-langileak: kapital sozialaren zatirik handiena mugagabeko langileen jabetzapekoa izan behar da.
- Fiskalitatea: SA edo SL-etan bezala, OEZren salbuespen-kasuetan izan ezik.
- Diru-laguntzak: gizarte ekonomiako enpresei zuzenduriko laguntza bereziak (Eusko Jaurlaritza- Lan Saila).
- Lege honek aurreikusi ez dituen kasuetan, sozietate anonimoen araudian edota erantzukizun mugatuko sozietateen araudian xedatutakoa hartuko da kontuan.

# SOZIETATE PROFESIONALAK

- Arauketa: Sozietate Profesionalei buruzko 2/2007 Legea.
- Helburu Soziala: jarduera profesional bat komunean egikaritzea; sozietate profesional gisa eratu beharko dira.
- Antolatzeko askatasun-printzipioa: edozein forma juridiko erabilita eratu daiteke (SL, SA, Sozietate Zibila)
- Izena: objektiboa edo subjektiboa izan daiteke. Gizarte izaera jaso behar du, bai eta profesional terminoa ere.
- Bazkideak: Profesionalak eta EZ profesionalak. PROFESIONALEK sozietatearen kontrola izan behar dute, administrazio organoarena barne. ¾-en jabe izan behar dira, honakoetan:
  - Kapital edo ondare soziala
  - Boto-eskubidea edo bazkide-kopurua.
  - Administrazio-organoetako kideak.
- Eraketarako formalitateak:
  - Eskritura publikoa.
  - Merkataritzako Erregistroan inskribatzea.
  - Elkargo Profesionala Sozietate Profesionalen Erregistroan inskribatzea.
- Profesionalen erantzukizun pertsonala: bezero eta erabiltzaileen aldeko bermea, modu kolektiboan emandako zerbitzu profesionalak direla eta.
  - Jardueraren garapenean jatorria EZ duten zorrak.
  - Jardueraren garapenean jatorria duten zorrak.

DEMA
ENPRESAK SORTUZ ETA GARATUZ
CREACIÓN Y DESARROLLO EMPRESARIAL

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Europako Gizarte-Fondoa
Fondo Social Europeo
*Europako Gizarte Fondoak zure etorkizunean inbertitzen du*
*El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro*

# ENPRESA BAT ERATZEKO TRAMITEAK

# GIZARTE ETA LANEKO FORMALITATEAK

**1.- LANEKO ZENTROA IREKIKO DELA JAKINARAZTEA:**

Non: Eusko Jaurlaritzaren Lan Sailean (Kale Nagusia 82). inprimaki ofizialaren lau kopia eramanda.

Epea: 30 egun, laneko zentroa ireki zenetik zenbatzen hasita.

**2.- BAZKIDE LANGILEAK DAGOKION GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMENEAN INSKRIBATZEA:**

Non: Helbidearen araberako Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra, inprimaki ofizialaren bidez.

Epea: JEZen alta emandako hilean.

**3.- ENPRESA GIZARTE SEGURANTZA INSKRIBATZEA ETA PATRONALAREN ZK. LORTZEA:**

Inoren konturako lehen langilea kontratatzen denean, esklusiboki. Ordura arte ez da beharrezkoa.

**4.- BISITA-LIBURUA:**

Liburu denda espezializatuetan erosi, eta legeztatu egin behar da, Laneko Lurralde Ordezkaritzan (Kale Nagusia 50) jartzen dioten zigiluaren bidez.

# JARDUERA KOKATZEKO DIRU-LAGUNTZAK

- Lokala kokatuta dagoen udalerriko Udalean.
- Udal bakoitzaren Ordenantzak kontuan hartuta betiere.
- Tasa bat baino gehiago izan daitezke, esaterako:

  - OBRA-LIZENTZIA.
  - ESTABLEZIMEDUA IREKITZEKO LIZENTZIA: nahitaezkoa.
  - BIDE PUBLIKOA OKUPATZEAGATIKO TASA.
  - PUBLIZITATEAREN GAINEKO ZERGA.
    Plakak, publizitateko kartelak, etab. Jartzeagatik.
  - ESTOLDERIA ETA ZABORRENGATIKO TASAK.

# JARDUERARI EKITEKO FORMALITATEAK (fiskalitatea)

**1.- PETICIÓN DE TARJETA DE IDENTIFICACIÓN FISCAL Y ALTA EN EL CENSO:**

- FORU OGASUNEAN (Kaputxinoen etorbidea z/g, Bilbo).
- Erantsi beharrekoak: Merkataritzako Sozietatearen eskriturak edo OE-ren eraketako kontratua; bazkideen NAN, eta zentsuko alta agiria, behar bezala beteta. (036)
- OEZ ordaintzen den aldi berean tramitatzen da.

**2.- OEZren ORDAINKETA:**

- FORU OGASUNEAN.
- Erantsi beharrekoak: Merkataritzako Sozietatearen eskriturak edo OE-ren eraketako kontratua (jatorrizkoa eta kopia) gehi dagokion inprimakia.
- Tasa: %1, kontratuan finkatutako kapital sozialaren gainean.

**3.- ALTA JEZ-EN:**

- Jarduera hasten denean gauzatu behar da.
- Foru Ogasunean edota Udalean tramitatu behar da, udalerriaren arabera (Bilbo, Basauri). 840/845 inprimakia.
- BEZarekin batera ematen zaio alta.
- Une horretatik aurrera enpresek fakturak eman ditzakete.
- JEZ ordaintzeko salbuespena: 2 milioi eurotik beherako diru-sarrerak.
- Ondasun Erkidego bat eratuz gero, banakako enpresaria, burututako jardueraren arabera honakoak gauza ditzakegu: Enpresa jarduerak edo Jarduera Profesionalak
- Aurreko horrek baldintzatuko du PFEZ: Estimazio Objektiboa eta Zuzeneko Estimazioa.

# JARDUERA GAUZATZEKO BAIMEN BEREZIAK

- Eusko Jaurlaritzaren Sail edota Ministerio desberdinen baimenak, egikaritu beharreko jardueraren araberakoak.
- 1. adibidea: Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren baimena, Kanpo-merkataritzako jarduerak gauzatzeko.
- 2. adibidea: Osasun Sailaren baimenak, elikagaientzako.
- 3. adibidea: Industria Sailaren baimena, produktu berrientzako.
- Talde sustatzaile bakoitzak puntu hau aztertu beharko du bere bideragarritasun-azterlanean; horren arabera tramitatu beharko ditu nahitaezkoak diren baimen espezifiko guztiak.

# INDUSTRIA JABETZAREN ERREGISTROA: PATENTEAK ETA MARKAK

- Nahitaez bete beharreko baldintza ez bada ere, oso komenigarria da, zenbait jarduueretan batez ere.
- Tramitazioa: Industria jabetzaren Erregistroa (Eusko Jaurlaritzaren Industria Saila / Concha Jenerala 23)
- www.oepm.es

**KONTZEPTUAK:**

**PATENTEAK:**

Industrian epe jakin batez asmakizun bat esklusibotasunez erabili, eta horren bidez ekoiztutako produktuak saltzeko eskubidea aitortzen duen titulua da. Asmakuntza berriak bakarrik patentatu daitezke, asmakuntza-jarduera dakartenak, eta industrian aplikatzeko modukoak direnak.

**BZALIAGARRITASUN MODELOAK:**

Asmakuntza-jarduera bidezko asmakizun berriak dira, eta objektu zehatz bati konfigurazio, egitura edota osaera bat ematea dute helburu, erabili edota fabrikatzeko orduan abantaila praktikoa ekarriko duelarik.

**MERKATARITZAKO IZENA:**

Pertsona fisiko edo juridiko bat enpresa jardueran identifikatzeko erabiltzen den zeinu edo izena da, eta antzeko jardueretatik bereizteko balio du .

**MARKAK:**

Pertsona jakin baten produktu edo zerbitzuak merkatuan egon daitezkeen berdinen artean bereizteko balio duen zeinu edo baliabidea.

DEMA ENPRESAK SORTUZ ETA GARATUZ CREACIÓN Y DESARROLLO EMPRESARIAL

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Europako Gizarte-Fondoa
Fondo Social Europeo
*Europako Gizarte Fondoak zure etorkizunean inbertitzen du*
*El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro*

# ENPRESA ASEGURATZEA

1º.- Enpresaren arriskuak eta arrisku horiek prebenitzeko neurriak definitzea.

2º.- Aseguru-etxeei aurrekontu bat baino gehiago eskatzea.

3º.- Prima guztien kostuaren gaineko aurreikuspena, gure enpresako kostuen artean. (Kostu handia duten jarduerak egongo dira).

**ASEGURATZEKO MODUKO ARRISKUAK:**

**1.- Enpresa barruko KALTE MATERIALAK:**

Honakoak estaltzeko:

Eraikinak, pabilioiak eta bulegoak; makinak, altzariak eta instalazioak; merkantziak eta lehengaiak.

Honako **Aseguru-polizak** kontratatu behar ditugu:

Suteak eta berme osagarriak; lapurreta eta espoliazioa; makinetako matxurak; ekipo elektronikoen arriskuak; merkantzien garraioa.

**2.- Jardueraren HUTSEGITE edota ETETEAGATIKO kalteak:**

Istripu baten ondorioz jarduera eten egin daiteke. Geldiune horri aurre egoteko, mozkinen galera estaltzen duen aukera kontratatu dezakegu (adib: eguneko).

**3.- Hirugarren pertsonen aurreko ERANTZUKIZUNA:**

- Gure jardueran izandako zabarkeriaren batetik eratorritako erreklamazio ekonomikoren bat izan dezakegu.
- Horren aurrean estalita egoteko, Erantzukizun Zibileko aseguru bat kontratatu behar dugu; estali beharreko arriskuaren araberako kostua izango du.

# LANEKO OINARRIZKO ALDEAK (I)

- ENPRESAREN eta LANGILEEN arteko laneko harremanei buruzko Oinarrizko Legeria
  - Langileen Estatutua. Legegintzazko 1/995 Errege Dekretua.
  - Jarduera bakoitzari dagokion Hitzarmen Kolektiboa.
  - Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorra. Legegintzazko 1/1994 Errege Dekretua.

**GIZARTE SEGURANTZAREN AFILIAZIOA:**

- BAZKIDE LANGILEAK:
  - Banakako enpresaria.
  - SL-SLNE-SA.
  - Lan Sozietateak.
  - Kooperatiba Elkarteak
- INOREN KONTURAKO LANGILEA (ERREGIMEN OROKORRA)
  - Laneko kontratazioetarako oinarrizko modalitateak:
    - Mugagabeko kontratuak.
    - Aldi baterako kontratuak.
      - Iraupen jakinekoak:
        - Obra edo zerbitzu kontratua
        - Produkzio-inguruabarren araberakoa
        - Ordezkapen edo bitarteko kontratua
      - Prestakuntzarako:
        - Praktiketako kontratua.
        - Prestakuntza-kontratua.

# LANEKO OINARRIZKO ALDEAK (II)

- Ordainsaria
  - Ordainsaria finkatzea
  - LGA 2010: 633,30 €/hilabete edo 8.866,20 €/urtea.
  - Nominak

- Kotizazioa
  - 2010eko gutxieneko eta gehieneko oinarriak. Kotizazio-tasak. ESTATUKOAK
  - Gizarte Segurantza eta Langabezia prestazioak
  - Periodikotasuna: hilero

- Atxikipena
  - Atxikipen-tasak: PROBINTZIAKOA
  - Periodikotasuna: hiruhilekoa

# WEB ORRI INTERESGARRIAK

http://infodema.demabiz.net

http:// www.bizkaia.net (Sustapen ekonomikoa)

http:// www.euskadi.net (Sortu enpresa)

http:// www.confebask.es

http:// www.cebek.es

http:// www.spri.es

http:// www.circe.es

http:// www.elkarlan.coop

http:// www.asle.es

http:// www.seg-social.es

http:// www.redtrabaja.es

DEMA
ENPRESAK SORTUZ ETA GARATUZ
CREACIÓN Y DESARROLLO EMPRESARIAL

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

Europako Gizarte-Fondoa
Fondo Social Europeo
*Europako Gizarte Fondoak zure etorkizunean inbertitzen du*
*El Fondo Social Europeo invierte en tu futuro*

---

**ESKERRIK ASKO ESKAINI DIGUZUN ARRETAGATIK!!!**